

HITZAURREA

Urteroko zitari huts egin gabe horra non duzuen eskuartean Lezo aldizkariaren uzta oparoa. Lehengo urteko Mendekosteetan kalera-tu genuen Lezo 18 hartatik herriaren kultur bizitza ez da gelditu, ez horixe, eta horren erakusle dituzue, besteak beste, zenbaki mardul honetako lanak. Ohi bezala alor ugari jorratu dituzte herriko idazle-ek oraingoan ere; literatura, saiakera, historia, herriaren arazoak, kultur ondarea eta beste hainbat.

Esan beharrik ez dago herriko aldizkarigintza zorioneko dagoela. Bi aldizkari ditugu herrian bakoitzak bere funtzioa duelarik, bata urtean behin kaleratzen dena; eta bestea, berriz, hilero. Hil honetan biak bat etorri dira orain arte argitaratu dituzten zenbaki kopuruan, izan ere, hemeretzina zenbaki jarri dituzte lezoarron eskuetan bi aldizkariok. Zorionak, beraz, Orratx! eta Lezo aldizkari.

Lerro hauen bidez, zorionak eman nahi dizkiegu, halaber, zenba-ki hau osatzeko beren lanak igorri dizkiguten herritarrei. Eskerrik asko eta bide beretik jarrai dezazuela eskatu nahi dizuegu, zuek gabe ezinezkoa izango bailitzateke aldizkari hau. Zabalik dituzue bere orriak zuen lanak argitaratzeko eta era hartara herriaren kul-tur bizitza aberasteko.

Besterik gabe goza ezazue eta atera iezaiozue ahalik eta zukurik gehiena.

Kitto

Lezo Aldizkariaren Erredakzio Batzordea